

ANEXO II

PREÁMBULO

La Asamblea de las Regiones de Europa (ARE) reunida en Asamblea General en Basilea el día 4 de Diciembre de 1996

1. Considerando que la ARE representa cerca de 300 Regiones europeas de diferentes tamaños y estructuras administrativas y políticas con una población total de casi 400 millones de habitantes;

2. Considerando que estas regiones tienen estatus diferentes, en función de la historia, la cultura y los principios constitucionales que marcan la organización territorial de cada Estado. En el estricto respeto de esta diversidad, esta Declaración común refleja las aspiraciones de las Regiones hacia nuevos avances de regionalización, en el marco institucional de su país, sea organizado mediante una estructura federal, autonómica o en poderes políticos descentralizados. Este texto no podrá ser interpretado de forma que comprometa a las Regiones en uno u otro de estos sistemas;

3. Considerando que las Regiones constituyen un elemento esencial e irremplazable de la construcción de Europa y del proceso de integración europea;

4. Consciente de que las Regiones tienen orígenes y funciones diferentes en el sentido de que algunas albergan desde hace mucho tiempo comunidades, etnias e, incluso, naciones | diferenciadas, mientras otras han sido creadas como distritos administrativos que ejercen funciones delegadas por el Estado;

5. Reconociendo la importancia en Europa del proceso de integración y de regionalización;

6. Observando que los ciudadanos se identifican cada día más con su Región a través de lazos históricos, lingüísticos, culturales, sociales, económicos y geográficos, cuya variedad constituye una riqueza inagotable;

7. Convencidos de que los Estados dotados de estructuras políticas regionales fuertes, es decir, con competencias legislativas y financiación propia, pueden resolver de manera óptima los problemas económicos y sociales que se presenten;

8. Considerando también que la realidad regional justifica la participación de las Regiones en los órganos del Estado y la actuación en el ámbito internacional;

9. Conscientes de que las Regiones, dentro del orden jurídico del Estado, son un elemento indispensable de democracia, descentralización y autodeterminación, per-

mitiendo a los ciudadanos identificarse con su comunidad e incrementando las oportunidades para su participación en la vida pública;

10. Conscientes de que las Regiones y sus ciudadanos tienen múltiples posibilidades de llevar a cabo y desarrollar más allá una cooperación política, económica y cultural, ventajosa para ambos;

11. Constatando el inmenso potencial de cooperación política, social, económica y cultural que existe entre las Regiones europeas, así como la importancia de esta cooperación interregional a nivel nacional, transfronterizo e internacional, para la construcción de una Europa unida, solidaria, cuyas acciones se conozcan y comprendan mejor por los ciudadanos;

12. Considerando que la participación de las Regiones en el proceso de toma de decisión de las Instituciones europeas, de acuerdo con el principio de Subsidiariedad, contribuye a mejorar la transparencia de las acciones de la UE para sus ciudadanos;

13. Considerando el interés del Proyecto de la “Carta Europea de la Autonomía Regional” del Consejo de Europa (1996) así como de la “Carta Comunitaria de la Regionalización” del Parlamento Europeo (1988);

14. Convencidos de la importancia de la presente Declaración, que traduce una voluntad política y unas aspiraciones que las Regiones desean promover en Europa, respetando la pluralidad de situaciones de cada una de ellas, que necesitan soluciones diversas;

ha adoptado la siguiente Declaración:

Artículo 1. La Región - Definición y concepto

1. La Región es el Ente Público territorial de nivel inmediatamente inferior al Estado, dotado de autogobierno político.

2. La Región encuentra su reconocimiento en la Constitución o en la ley la cual garantiza la autonomía de la Región, su identidad, sus competencias y su forma de organización.

3. La Región estará dotada de una Constitución propia, de un Estatuto de Autonomía u otra ley, que formarán parte del ordenamiento jurídico estatal al más alto nivel, estableciendo, al menos, su organización y competencias. La modificación del estatus de la Región no puede realizarse sin su participación. Las Regiones podrán tener estatus diferentes, dentro de un mismo Estado, en consonancia con sus particularidades históricas políticas, sociales o culturales.

4. La Región expresa una identidad política propia, susceptible de configurarse políticamente de formas muy diversas, correspondiendo a la voluntad democrática de cada región adoptar la forma de organización política que prefiera. La Región dotará a su Administración de personal así como de un patrimonio propio y adoptará sus símbolos de representación.

Artículo 2. Organización institucional de la Región

1. La Región dispondrá de personalidad jurídica plena.
2. La estructura fundamental de la Región se configurará a partir de un órgano de representación y de un órgano ejecutivo. Será la Región la que decida sobre su organización.
3. Los miembros del órgano de representación se elegirán mediante sufragio universal, libre, igual, directo y secreto. Este órgano podrá ser dotado de poderes legislativos, en los límites establecidos por el orden jurídico interno.
4. El órgano ejecutivo será políticamente responsable ante la asamblea representativa, en las condiciones y modalidades previstas por el derecho interno.
5. Los miembros que componen la asamblea representativa o el órgano ejecutivo, no serán objeto de medidas de control del poder central que perjudiquen al libre ejercicio de sus funciones.

Artículo 3. Competencias

1. El reparto de competencias. entre el Estado y las Regiones se regula en la Constitución o en las leyes, de acuerdo con el principio de descentralización política y de subsidiariedad. En virtud de estos principios, las funciones deben ser ejercidas al nivel más cercano posible a los ciudadanos. (véase anexo)
2. La ejecución de las normas estatales, bien directamente o por delegación, debe ser como norma general, responsabilidad de las Regiones.
3. La Región debe ser responsable de todas las funciones que tengan una dimensión predominantemente regional.
4. Si el Estado dispone de administraciones descentralizadas a nivel regional, a efectos de evitar duplicidades, transferirá a los órganos de la Región el personal y los medios financieros correspondientes.
5. La Región ejercerá de forma individual las competencias que le han sido atribuidas. Las Regiones se pondrán de acuerdo, en el seno de un mismo Estado, para armonizar, si se considera necesario, las acciones que desarrollan en el marco de sus competencias propias. En este sentido, decidirán sobre los procedimientos necesarios a poner en marcha.
6. Las decisiones o medidas estatales que afecten a las competencias o intereses regionales no pueden ser adoptadas sin el acuerdo previo de las Regiones afectadas, en particular las medidas que tengan una incidencia sobre su situación financiera o sobre la de los poderes locales, o las decisiones que modifiquen el alcance de las competencias legislativas de las Regiones, en el caso de que las tengan.

Anexo al artículo 3 párrafo 1

Ejemplo de competencias existentes en las regiones:

- política económica regional;
- ordenación del territorio, política de construcción y vivienda;
- infraestructuras de telecomunicaciones y transportes;
- energía y medio ambiente;
- agricultura y pesca;
- educación a todos los niveles, universidades e investigación;
- cultura y medios de comunicación social;
- salud pública;
- turismo, ocio y deportes;
- policía y seguridad pública.

Artículo 4. La financiación de la Región

1. La Región dispondrá de autonomía financiera y de recursos propios suficientes para el pleno desarrollo de sus competencias. Se regirá en la gestión de sus recursos principalmente por los principios de ahorro, eficacia, aprovechamiento de los medios, servicio a los ciudadanos y transparencia en sus decisiones presupuestarias.

2. Los principios fundamentales de las finanzas públicas y de distribución de ingresos, así como las premisas estatales para la economía presupuestaria de las Regiones, deben regularse por la Constitución o ley. La Región juega un papel decisivo en el desarrollo de la legislación financiera de los Estados.

Artículo 5. Los recursos financieros de la Región

1. Los recursos financieros de la Región consisten básicamente en impuestos cedidos total o parcialmente por el Estado y en impuestos propios.

2. La Región recibirá los ingresos necesarios para la realización de sus funciones. Para ello, tendrá derecho a una proporción adecuada de los impuestos recaudados por el Estado. Sus ingresos serán suficientes, hallándose concentrados uniformemente y sobre unas pocas fuentes fiscales de gran importancia, para favorecer su gestión presupuestaria y asegurar - una política económica dirigida a un desarrollo durable.

3. Según la legislación estatal, las Regiones tendrán un derecho propio a la recaudación de impuestos y localización de fuentes fiscales. Para ello podrán definir los criterios de fijación de los impuestos, tasas y derechos. En la medida en que se encuentre previsto en la legislación pueden decidir efectuar recargos sobre los impuestos estatales.

4. Si una fuente fiscal se divide en varias corporaciones territoriales (impuesto común), la proporción y el método de distribución se determinarán por ley.

Las asignaciones financieras generales del Estado tienen prioridad sobre las especiales que se regirán únicamente por los criterios previstos legalmente.

5. En la medida en que la recaudación fiscal no sea competencia de las Regiones, éstas participarán en la estructuración de los organismos así como en el diseño del procedimiento fiscal. Esto será aplicable también para la composición y el procedimiento de los Tribunales competentes.

6. Dentro de 105 límites establecidos por ley, las Regiones podrán concertar operaciones de crédito para financiar sus inversiones. Los límites de estas operaciones de crédito así como el control de su legalidad se establecerán por ley.

Artículo 6. La compensación financiera interregional

1. El principio de la solidaridad requiere un sistema de compensación financiera interno a nivel estatal. Los objetivos y el procedimiento de compensación financiera se establecerán en la Constitución o en la ley. Para ello se tendrán en cuenta las diferentes cargas que soportan las Regiones sobre la base de criterios de distribución objetivos. Sin embargo, la compensación financiera no perjudicará la utilización apropiada de las fuentes fiscales por parte de las Regiones con obligación de compensación financiera. Para la determinación de la compensación se tendrán en cuenta también las necesidades de las corporaciones municipales. La compensación financiera se realizará mediante transferencia del Estado a las Regiones y de las propias Regiones entre sí.

2. El principio de solidaridad debe manifestarse también en el seno de la Unión Europea para paliar las desigualdades interregionales con objeto de alcanzar el objetivo de la cohesión económica y social en Europa. Los Fondos estructurales de la Unión Europea serán un instrumento para la consecución de este objetivo.

Artículo 7. Participación en los Órganos centrales del Estado

1. Las Regiones participarán de forma adecuada en los órganos legislativos del Estado.

2. El Estado, en el ámbito de sus propias competencias, arbitrará mecanismos que permitan la coordinación y participación de las instituciones regionales en los procesos de toma de decisión estatales, en el caso de que dichas decisiones afecten a las competencias regionales.

3. Las Regiones participarán en el nombramiento de los órganos jurisdiccionales que resuelvan los conflictos de competencia entre el Estado y las Regiones. Los conflictos entre las Regiones y el Estado establecerán procedimientos de solución jurisdiccionales o arbitrales.

Artículo 8. El Estado y las Regiones

1. Las relaciones del Estado con sus Regiones y de éstas entre sí responderán a los principios de respeto mutuo, cooperación y solidaridad. Las Regiones y el Estado promoverán la cooperación recíproca y se abstendrán de tomar medidas que puedan perjudicar o limitar el ejercicio de competencias de los demás niveles.

2. En el caso de que existan, los controles del Estado sobre las Regiones serán los previstos en la Constitución o en su defecto por la ley correspondiente.

3. Las Regiones pueden concluir Tratados o acuerdos con otras Regiones del mismo Estado.

4. Como regla general, las competencias administrativas deben ser ejercidas por las Regiones, y sólo excepcionalmente por el Estado.

Artículo 9. Las Regiones y las Colectividades Locales

1. En el ejercicio de sus poderes, las Regiones y las Colectividades Locales cooperarán bajo un espíritu de confianza mutua y de acuerdo con el principio de subsidiariedad. Las Regiones y las Colectividades Locales adoptarán todas las medidas adecuadas para la promoción de la cooperación mutua, teniendo en cuenta el control que, las Regiones, en su caso ejercen sobre las Colectividades Locales.

2. Las Colectividades Locales serán consultadas en relación con todas las medidas regionales que afecten a su ámbito competencial o a su interés particular. En concreto, éstas incluirán todas aquellas medidas que afecten al aspecto financiero propio de las Colectividades Locales.

Artículo 10. Las Regiones y las relaciones internacionales

1. Las Regiones tendrán capacidad para actuar en el ámbito internacional. Las Regiones pueden celebrar Tratados, Acuerdos o Protocolos de Intenciones Internacionales, condicionados a la aprobación del Gobierno central, siempre que la legislación estatal se lo exija.

2. Las Regiones promoverán la cooperación entre sí, bilateral o multilateralmente, tanto dentro del Estado como más allá de las propias fronteras, con el fin de realizar proyectos comunes.

3. Las Regiones tendrán derecho a establecer representaciones propias, sea individualmente o con otras Regiones, en terceros Estados y ante organizaciones internacionales competentes.

4. Sin perjuicio de lo expresado en el párrafo 1º de este artículo, las Regiones participarán en las actividades internacionales de su Estado, según los mecanismos jurídicos internos establecidos al efecto, y siempre que afecten a sus competencias legislativas o intereses esenciales.

5. Antes de la conclusión de un Tratado internacional que afecte a los intereses esenciales de las Regiones, éstas serán consultadas por el Estado. Si el Estado quiere celebrar Tratados internacionales que afecten a las competencias de las Regiones, éstas participarán con el Estado en la elaboración y conclusión del Tratado. Los detalles sobre la participación serán regulados por procedimientos internos entre el Estado y las Regiones. La ejecución de un Tratado estará regulado por el reparto de competencias entre el Estado y sus Regiones.

Artículo 11. Las Regiones y la cooperación transfronteriza

1. Las Regiones que cuenten con fronteras comunes, en el respeto de sus respectivos órdenes jurídicos estatales concernidos y del Derecho Internacional, promoverán la cooperación transfronteriza.

2. Las Regiones, teniendo en cuenta debidamente las legislaciones estatales y los acuerdos internacionales de los Estados, tendrán derecho a establecer acuerdos transfronterizos para desarrollar dicha cooperación en el ámbito de sus competencias.

3. Las Regiones tienen derecho a constituir, en el marco jurídico de cada uno de los Estados afectados, organismos comunes, de tipo deliberativo o ejecutivo.

4. Las Regiones tienen derecho a constituir, en el marco jurídico de cada uno de los Estados afectados, organismos comunes, de tipo deliberativo o ejecutivo.

Artículo 12. Las Regiones y la Unión Europea

1. La Unión Europea reconocerá a las Regiones de sus Estados miembros y asociaciones de carácter regional como sujetos activos de sus políticas. Se dotará de un órgano de composición regional, que participará en los procesos decisionales que afecten a competencias o intereses regionales. Sus miembros serán propuestos por las Regiones.

2. Las Regiones podrán establecer oficinas de representación ante las instituciones de la Unión Europea. Estas oficinas de representación podrán establecerse compartidamente. La Unión Europea les reconocerá un estatus propio, así como los Estados en los que se encuentren.

3. Las Regiones, en el ámbito de sus competencias o cuando sus intereses se vean afectados participarán en la formación de la posición de sus Estados ante las instancias comunitarias.

4. Si la competencia es exclusiva de la Región o afecta de manera especial a sus intereses, el Estado no podrá desviarse de la postura establecida por la Región, salvo si el derecho interno lo exige por razones de integración. El Estado deberá motivar su desviación del dictamen regional. La Región tendrá también el derecho de participar en los procesos decisionales que se desarrollen ante los órganos comunitarios y, en especial, nombrando a un representante que forme parte de la delegación estatal.

5. Las Regiones ejecutarán la normativa comunitaria en el ámbito de sus competencias.

6. Las Regiones gestionarán las asignaciones de los Fondos comunitarios que afecten a sus competencias. Las relaciones entre la Unión Europea y las Regiones en estos supuestos no precisarán la intermediación del Estado.

7. Las Regiones podrán celebrar Convenios dirigidos a mejorar la ejecución de las políticas comunitarias. El control de la ejecución de las normas comunitarias por las Regiones será jurisdiccional. El Estado y las Regiones se informarán mutuamente sobre las medidas que adopten en la ejecución de las normas y programas comunitarios.

8. Las Regiones están legitimadas para acudir ante el Tribunal de Justicia de la Unión Europea si una medida de los órganos comunitarios afecta a sus competencias o intereses.

9. La Ley Electoral que rige las elecciones al Parlamento Europeo preverá la circunscripción regional en aquellos Estados que cuenten con estructuras políticas o administrativas descentralizadas.

10. Deberán establecerse mecanismos de contacto entre el Parlamento Europeo y los Parlamentos regionales como instituciones que representan directamente la voluntad popular de los ciudadanos.

Artículo 13. Consideraciones finales

1. La Asamblea de las Regiones de Europa (ARE) adopta la presente Declaración de carácter político, con el objeto de promover y reforzar el regionalismo en Europa. Teniendo en cuenta la gran diversidad de aspiraciones y de situaciones existentes, dicho documento, cuya aplicación no es vinculante, servirá a algunas Regiones como guía, estableciendo unas pautas mínimas y unos objetivos para la regionalización.

2. La ARE y sus miembros actuarán ante los Gobiernos de los Estados, ante los órganos de la Unión Europea y ante otras instancias europeas, para la realización de los objetivos del presente documento.

3. Del mismo modo, la Declaración evidencia que la Región es la forma de organización óptima con la que pueden solucionarse los problemas regionales de forma adecuada y autónoma. Los Estados europeos deberán comprometerse a desarrollar al máximo el traspaso de competencias hacia las Regiones así como los medios financieros necesarios para asumirlas, introduciendo las modificaciones necesarias en la legislación internacional.

4. La ARE y sus miembros promoverán también la cooperación interregional europea a todos los niveles y prestarán su ayuda a la regionalización de los Estados hoy en día centralizados o modificando, si fuese necesario el derecho constitucional de manera a permitir la creación de estructuras regionales óptimas.

5. El fortalecimiento y la profundización del regionalismo se apoya en la cooperación transfronteriza. El desarrollo de una identidad regional apoyada sobre la cooperación transfronteriza favorece la estabilidad política y social.

6. La constitución del Comité de las Regiones en el seno de la Unión Europea y del Congreso de Poderes Locales y Regionales en el marco del Consejo de Europa, representa un gran avance para el regionalismo en Europa. A más largo plazo, se debería llegar a una Europa de las Regiones constituyendo un tercer nivel. Esto conduciría a transformar el Comité de las Regiones en una verdadera Cámara regional.

7. La ARE y sus miembros apoyarán las asociaciones de las Colectividades Locales. Sin embargo el objetivo principal es el desarrollo de una verdadera identidad regional.

8. La ARE hará un seguimiento de los avances que se realicen en cada uno de los Estados europeos en la consecución de los objetivos de su Declaración.

HITZAURREA

Europako Eskualdeen Batzarrak (EEB) 1996ko abenduaren dan Basilean bildu da, eta

1. Kontuan izanda Europako Eskualdeen Batzarrak Europako ia 300 eskualde ordezkatzan dituela neurri eta administrazio nahiz politikako egitura ezberdinak dituztenak, eta eskualde horiek ia 400 milioi biztanle dituztela,

2. Kontuan izanda eskualde horiek estatus ezberdinak dituztela historiaren, kulturen eta estatu bakoltzaren lurralde-antolaketa arautzen duen konstituzioko printzipioen arabera, Aniztasun hori zorrotz errespetatuta, adierazpen bateratu honek eskualdeek lortu nahi dituzten helburuen berri ematen du, hau da, eskualdeen garrantzia bultzatu nahi du, herrialde bakoitzaren esparru instituzionalaren barruan dela egitura federala, autonomikoa edo deszentralizatutako botere politikoak. Testu hau ezin izango da interpretatu eskualdeak sistema horietako batean edo bestean konprometitzeko moduan,

3. Kontuan izanda Europa eraikitzeko eta bateratzeko orduan eskualdeak ezinbesteko osagai aldaezina direla.

4. Badakigunez eskualdeek jatorri eta eginkizun ezberdinak dituztela; hau da, batzuetan aspaldidaniko komunitate, etnia eta nazio berezituak ere bizi dira; beste batzuk, berriz, administrazioaren barrutiak izateko sortu dira eta estatuak beren esku utzitako eginkizunak dituzte,

5. Ohartzen garenez European integrazio-eta erregionalizazio-prozesuak duen garrantzi handiaz,

6. Ikusten dugunez herritarrek beren eskualdeari dioten atxekimendua gero eta handiagoa dela, historia, hizkuntza, kultura, gizartea, ekonomia eta geografiako arazoak direla eta; eta ugartasun hori aberastasun handia denez,

7. Uste dugunez eskualde mailako egitura politiko sendoak dituzten estatuak, hau da, eskualdeei legegintzako eta finantziarioko aginpide propioak eman dizkietenek, oso modu egokian konpon ditzaketela ekonomian eta gizartean sortzen diren arazoak,

8. Kontuan izanda eskualdeak egoteak bidezko egiten duela eskualde horiek estatuetako organoetan eta nazioartean parte hartzea,

9. Badakigunez eskualdeak, estatuaren ordena juridikoaren barruan, ezinbesteko osagai direla demokrazia, deszentralizazioa eta autodeterminazioari begira, herritarrei beren komunitatearekin identifikatzeko ankeria eman eta bizitza publikoan parte hartzeko bide handiagoa eskaintzen dietelako,

10. Badakigunez eskualdeek eta horietako herritarrek politika, ekonomia eta kulturaren arloko elkarlana aurrera eramateko aukera handiak dituztela, eta elkarlan hori bultzatuz, eskualde nahiz herritar, onuragarria izango dela,

11. Gauza jakina denez Europako eskualdeen artean politika, gizarte, ekonomia eta kulturaren arloan elkarlana bultzatzeko bideak benetan asko direla, eta eskualdeen arteko elkarlan horrek estatuan, estatu mugakideetan eta nazioartean garrantzi

handia duenez Europa batua eta solidarioa lortzeko eta herritarrek Europako ekintzak hobeto ezagutu eta ulertzeko,

12. Kontuan izanda Europako erakundeek erabakiak hartzen dituzten prozesuetan eskualdeek parte hartzen baldin badute (subsidiaritate printzipioaz bat), Europako Batasunaren ekintzak argiago ikusiko dituztela herritarrek,

13. Kontuan izanda “Eskualdeen autonomiari buruzko Europako ituna”ren proiektua (Europako Kontseiluak 1996. urtean onartua) eta “Erregionalizazioari buruzko Europako ituna”ren proiektua (Europako Legebiltzarrak 1988.ean onartua) interesgarriak direla,

14. Benetan uste dugunez adierazpen hau garrantzi handikoa dela, borondate politiko baten eta asmo batzuen berri ematen duelako, eskualdeek Europan bultzatu nahi dituzten asmoak hain zuzen ere, beti ere eskualde bakoitzeko egoeraren aniztasuna errespetatuta, irtenbideak ere askotarikoak direlako,

Esandako guztiagatik, adierazpen hau egin dugu

1. atala. Eskualdea definizioa eta kontzeptua

1. Eskualdea justu estatuaren azpitik dagoen lurralde-erakunde publikoa da, eta politikako autogobernurako ahalmena dauka.

2. Eskualdea konstituzioan edo legean onartuta dago. Batak zein besteak eskualdearen autonomia, nortasuna, aginpideak eta antolatze modua bermatzen dute.

3. Eskualdeak bere konstituzioa, autonomia-estatutua edo lege bat izango du, estatuko antolamendu juridikoaren maila gorenekoa. Konstituzio, estatutu edo lege horretan eskualdearen antolamendua eta aginpideak zehaztuko dira, gutxienez. Eskualdearen estatusa ezin izango da aldatu eskualdeak berak parte hartu gabe. Eskualdeek estatus ezberdina eduki ahal izango dute, estatu beraren barruan, eskualdearen historia, politika, gizarte eta kultura arloko ezaugarri berezien arabera.

4. Eskualdeak identitate politiko propio baten berri ematen du, eta identitate hori, politikoki, era askotara antola daiteke. Hori dela eta, eskualde bakoitzaren borondate demokratikoaren eskuetan egongo da gogokoen duen antolamendu politikoa aukeratzea. Eskualdeak bere administrazioan langileak eta ondasun propioak izango ditu, eta baita eskualdearen berri emateko sinboloak ere.

2. atala. Eskualdearen antolaketa instituzionala

1. Eskualdeak erabateko nortasun juridikoa izango du.

2. Eskualdearen oinarrizko egituran, ordezkaritza-organo bat eta organo betearazle bat egongo dira. Eskualdeak berak erabakiko du horiek nola antolatu.

3. Ordezkaritza-organoko kideak bozketa unibertsal aske, berdin, zuzen eta isilpekoaren bidez aukeratuko dituzte. Organo horrek legegintzako aginpideak eduki ahal izango ditu, barneko antolamendu juridikoan jarritako mugen barruan.

4. Organo betearazleak erantzukizun politikoak izango ditu ordezkaritza-batzarren aurrean, beti ere barne-zuzenbidean jasotako baldintzen eta aukeren barruan.

5. Ordezkaritza-batzarreko edo organo betearazleko kideek ez dute estatuko gobernuak bultzatutako inolako kontrol-neurririk izango, horrek beren eginkizunak asketasunez aurrera eramateari kalte egiten badio.

3. atala. Aginpideak

1. Estatuaren eta eskualdeen artean aginpideak nola banatu konstituzioan edo legeetan egongo da araututa, deszentralizazio politikoaren eta subsidiaritatearen printzipioaz bat. Printzipio horietan oinarrituta, eginkizunak herritarrarengandik gertuen dagoen mailan eraman behar dira aurrera.

2. Estatuko legeak betearaztea, zuzenean edo ordezkotza jasota, eskualdeen ardura izango da, orokorrean behintzat.

3. Batez ere eskualde mailakoak diren eginkizun guztiak eskualdeen ardura izango dira.

4. Estatuak eskualdeetan dauden administrazio deszentralizatuak baldin baditu, bikoitzasunei aurre egiteko, eskualdeetako organoen esku utziko ditu kasuan kasuko langileak eta finantza-baliabideak.

5. Eskualdeak bere aldetik eramango ditu aurrera eman zaizkion aginpideak. Estatu beraren barruko eskualdeak ados jarriko dira, bakoitzak bere aginpideen barruan aurrera eramaten dituen ekintzak bateratzeko, beharrezkoa ikusten baldin badute. Hori lortzeko biderik egokiena zein den erabakiko dute.

6. Estatuak ezin izango dute eskualdeen aginpideei edo interesei eragiten dien neurririk hartu, aldez aurretik eskualde horiekin akordioaren bat lortu ez bada; batez ere finantzen egoeran edo tokiko botereetan eragiten duten neurriak izango dira horiek, baina baita eskualdeen legegintzako aginpideetan eragiten dutenak ere, hala-ko aginpiderik baldin badute behintzat.

Ataleko 1. lerroaldeari dagokion eraskina

Eskualdeek dituzten zenbait aginpide:

- Eskualdeko politika ekonomikoa.
- Lurraldearen antolaketa; eraikuntzen eta etxebizitzaren politika.
- Telekomunikazio- eta garraio-azpiegiturak.
- Energia eta ingurugiroa.
- Nekazaritza eta arrantza.
- Maila guztietako hezkuntza, unibertsitatea eta ikerketa.
- Kultura eta gizarteko komunikabideak.
- Osasun publikoa.
- Turismoa, denbora librea eta kirolak.
- Polizia eta segurtasun publikoa.

4. atala. Eskualdeen finanziaioa

1. Eskualdeak finantza-autonomia eta behar besteko baliabide propioak izango ditu, aginpideak erabat garatu ahal izateko. Baliabide horiek erabiltzerakoan, printzipio hauek izango ditu gogoan, batez ere: aurreztea, eraginkortasuna, bitartekoak aprobetxatzea, herritarrei zerbitzua eskaintzea eta aurrekontuei buruzko erabakiak hartzerakoan gardentasunez jardutea.

2. Finantza publikoei eta dirusarrerak banatzeari buruzko printzipio nagusiak eta eskualdeen aurrekontuari dagokion ekonomia dela eta estatuak jarraitu beharrekoak konstituzioan edo lege bidez arautuko dira. Eskualdeak eginkizun erabakiorra dauka estaturen finantza arloko legeria garatzerakoan.

5. atala. Eskualdearen finantza baliabideak

1. Eskualdearen finantza-baliabideak, batez ere, estatuak guztiz edo zati batean eskualdearen esku utzitako zergak eta eskualdearen beraren zergak izango dira.

2. Eginkizunak aurrera eramateko beharrezko dirusarrerak eskuratuko ditu eskualdeak. Horretarako, estatuak biltzen dituen zergetatik ehuneko egokia jasotzeko eskubidea izango du. Dituen dirusarrerak behar bestekoak izango dira, modu uniformean kontzentratutakoak eta garrantzi handiko iturri fiskal gutxi batzuetatik datozenak. Hori horrela izanda, aurrekontuaren kudeaketa erraztu eta garapen iraunkorra helburu duen politika ekonomikoa ziurtatu ahal izango da.

3. Estatuak legerian esaten denaren arabera, eskualdeek zergak jasotzeko eta iturri fiskalak aurkitzeko eskubide propioa izango dute. Horretarako, zergak, tasak eta eskubideak finkatzeko irizpideak zehaztu ahal izango dituzte. Legerian aurrikusita baldin bada, estatuko zergeri gaitzuzko jartzea erabaki ahal izango dute eskualdeek.

4. Dena delako zerga hainbat lurralde-erakunderen artean banatuta baldin bada (zerga komuna), legez erabakiko da proportzioa eta banatzeko modua zein izango den. Estatuaren finantza-asignazio orokorrekin lehentasuna izango dute berezien aldean. Azken horiek legez aurrikusitako irizpideen arabera bakarrik arautuko dira.

5. Zergak biltzea ez baldin bada eskualdeen aginpidea, eskualdeek erakundeak egituraketan eta zerga- prozedimenduaren diseinuan parte hartuko dute. Beste horrenbeste egingo da arlo horretako aginpidea izango duten epaitegiak osatu eta horien jarduteko modua antolatzea dela eta.

6. Legeak ezarritako mugen barruan, eskualdeek kreditu-eragiketarako hitzartu ahal izango dituzte burutu nahi dituzten inbertsioak egin ahal izateko. Legeak ezarriko du kreditu-eragiketarako horiek zein muga izango duten eta nola kontrolatuko diren.

6. atala. Eskualdeen arteko finantza konpentsazioa

1. Solidaritatearen printzipioak barneko finantza-kompentsaziorako sistema bat izatea eskatzen du, estatu mailakoa izango dena. Finantza-kompentsazio horren helburuak zeintzuk izango diren eta nola eramango den aurrera konstituzioan edo legean egongo da finkatuta. Horretarako, eskualdeek nolako gastua duten edukiko da konpentsazioa, distribuziorako irizpide objektiboaren arabera. Hala ere, finantza-kompentsazioak ez

du eragingo konpentsazio hori eman behar duten eskualdeek zergak behar bezala ez erabiltzea. Konpentsazioa zenbatekoa izango den erabakitzeke, udalek nolako pre-miak dituzten ere kontuan izango da. Konpentsazioa gauzatzeko, transferentzia esta-tuetatik eskualdeetara eta eskualde batetik bestera egingo da.

2. Solidaritatearen printzipioa Europako Batasunaren baitan ere eraman beharko da aurrera, bertako eskualdeen arteko ezberdintasunei aurre egin eta Europako eko-nomiaren eta gizartearen kohesioa lortzeko. Helburu horri begira, Europako Batasuna-ren egitura-fondoak kohesio hori lortzeko tresnetako bat izango dira.

7. atala. Estatuko organo zentraletan parte hartzea

1. Eskualdeek modu egokian parte hartuko dute estatuko legegintzako organoetan.

2. Estatuak, bere aginpideen barruan, beharrezko bideak jarriko ditu eskualdeeta-ko erakundeek estatuko erabaki-guneetan parte hartu eta erakunde horiek koordina-tzeko, beti ere hartuko den erabakiak eskualdeen aginpideei eragiten baldin badie.

3. Estatuaren eta eskualdeen artean aginpideak direla eta sortzen diren arazoez erabakitzeke, organo jurisdikzionalak egongo dira, eta eskualdeek organo horien izen-dapenean parte hartuko dute. Arazoak eskualdeen eta estatuaren artean sortzen bal-din bedira, irtenbidea jurisdikzionala edo arbitraia bidezkoa izango da.

8. atala. Estatuak eta eskualdeak

1. Estatuaren eta eskualdeen arteko eta eskualdeen beren arteko harremanetan, elkarrekiko errespetua, elkarlana eta solidaritatea izango dira beteko diren printzipio-ak. Eskualdeek eta estatuak elkarrekiko lankidetzak bultzatuko dute, eta ez dute bes-teen aginpideak kaltetu edo muga dezakeen neurririk hartuko.

2. Halakorik baldin badago, estatuak eskualdeei ezarriko dien kontrola konstitu-zioan edo, bestela, kasuan kasuko legean ezarritakoa izango da.

3. Eskualdeek estatu barruko beste eskualde batzuekin hitzarmenak edo akordio-ak izenpetu ahal izango dituzte.

4. Arau orokor gisa, administrazio-aginpideak eskualdeek gauzatzeko dituzte; sal-buespenetan bakarrik egongo dira estatuaren esku.

9. atala. Eskualdeak eta toki-erakundeak

1. Bakoitzak dituen botereak erabiliz, eskualdeek eta toki-erakundeek elkarlanean jar-dungo dute, elkarrekiko konfidantzan eta subsidiaritate-printzipioaz bat. Eskualdeek eta toki-erakundeek neurri egoki guztiak hartuko dituzte elkarrekiko lankidetzak bultzatzeko. Dena den, kontuan izan beharko da eskualdeek toki-erakundeen gainean duten kontrola.

2. Eskualdeek toki-erakundeen aginpideei edo interes partikularrari eragiten dien neurriren bat hartzen baldin badute, horiei buruzko iritzia eskatuko zale toki-erakunde horiei. Zehatzago esanda, toki-erakundeen finantza-arloarekin zerikusia duten neurri guztien berri emango zaie.

10. atala. Eskualdeak eta nazioarteko harremanak

1. Eskualdeek nazioartean parte hartzeko gaitasuna izango dute. Eskualdeek nazioarteko hitzarmenak, akordioak edo asmoen protokoloak izenpetu ahal izango dituzte, baldin eta estatuko gobernua onartzen badu, estatuko legeriak onarpen hori izatea eskatzen duenean.

2. Eskualdeek elkarren arteko lankidetzak bultzatuko dute, bai bi eskualderen artekoa nahiz eskualde askoren artekoa, bai estatuaren barruan nahiz mugaz gaindi, elkarrekin proiektuak aurrera ateratzeko.

3. Eskualdeek ordezkaritza propioak ezarri ahal izango dituzte, bakoitzak bere aldetik edo elkarrekin, beste estatu batzuetan edo aginpidea duten nazioarteko erakundeetan.

4. Atal honen lehenengo lehenengo esandakoaren kaltetan gabe, eskualdeek estatuaren nazioarteko jardueretan parte hartuko dute, horretarako estatuaren dauden bide juridikoak erabilita, baldin eta jardura horiek eskualdearen legegintzako aginpideei edo oinarrizko intereseei eragiten badiete.

5. Dena delako eskualdearen oinarrizko intereseei eragiten dien nazioarteko hitzarmen bat izenpetu baino lehen, estatuak eskualdeari iritzia eskatuko dio. Eskualdeen aginpideei eragiten dieten nazioarteko hitzarmenak burutu nahi baditu estatuak, eskualdeek estatuarekin batera jardungo dute hitzarmena idatzi eta ondorioetara iristeko. Parte hartze hori nolakoa izango den estatuaren eta eskualdeen arteko barne-jardunbideetan egongo da araututa. Dena delako hitzarmena betearazteko orduan, estatuaren eta eskualdeen arteko aginpideen banaketa jarraitu beharko da.

11. atala. Eskualdeak eta mugaz gaindiko elkarlana

1. Mugakideak diren eskualdeek, bakoitzak bere estatuko antolamendu juridikoa eta nazioarteko zuzenbidea errespetatuta, mugaz gaindiko elkarlana bultzatuko dute.

2. Estatuaren legeriak eta nazioarteko akordioak behar bezala kontuan izanda, mugaz gaindiko akordioak finkatzeko eskubidea izango dute eskualdeek, dituzten aginpideen barruan aipatutako elkarlana aurrera eraman ahal izateko.

3. Eragiten dion estatu bakoitzaren esparru juridikoaren barruan, eskualdeek erakunde komunak osatzeko eskubidea izango dute, bai eztabaidatzeko eta baita ekin-tzak betearazteko ere.

4. Organo horien ekintzak aginpidea duten epaitegien zaintzapean egongo dira, eta eskualde mailako organo batek burutu balitu bezala jardungo da.

12. atala. Eskualdeak eta Europako Batasuna

1. Europako Batasunak estatu elkartekideetako eskualdeak eta eskualdeetako elkarrekin Batasunaren politikako sujetu aktibotzat hartuko ditu. Eskualdeek osatutako organo bat sortuko du Batasunak, eskualdeen aginpideei eta intereseei eragiten dieten erabakiak hartzerakoan parte hartzeko. Organo horretako kideak eskualdeek proposatuko dituzte.

2. Eskualdeek bulegoak ireki ahal izango dituzte, Europako Batasuneko Erakundeen aurrean ordezkaritza-lana egiteko. Ordezkaritza-bulego horiek elkarrekin batera ere jarri ahal izango dituzte eskualdeek. Europako Batasunak nahiz bulegoa dagoen lekuko estatuak estatus propioa onartuko diete bulego horiei.

3. Eskualdeek, beti ere aginpideen barruan edo beren interesei eragiten zaienean, estatuak eman beharreko iritzia osatzeko parte hartuko dute, Batasuneko erakundeen aurrean esan beharrekoa dela eta.

4. Aginpide osoa eskualdearena baldin bada edo modu berezian eragiten badie eskualdearen interesei, estatuak ezin izango du eskualdeak hartutako jarreraz bestelakoa izan, ez bada barneko zuzenbideak hala eskatzen duelako, integrazioko arrazoiak direla eta. Estatuak azaldu egin beharko du zergatik duen eskualdeak ez bezalako iritzia. Esandakoaz gainera, eskualdeek Batasuneko organoetan erabakiak hartzeko aurre-eramango diren prozesuetan parte hartzeko eskubidea izango dute. Parte hartze hori, bereziki, estatuko ordezkaritzarako kide bat izendatuta gauzatuko da.

5. Eskualdeek betearaziko dituzte Batasuneko arauak, beren aginpidekoak baldin badira.

6. Eskualdeek kudeatuko dituzte Batasuneko fondoetatik datozen diru-kopuruak, laguntza horiek eskualdeen aginpideko arloetarako baldin badira. Egoera horietan, ez da beharrezkoa izango estatuaren bitartekaritza Europako Batasunaren eta eskualdeen artean jarduteko.

7. Eskualdeek hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte, Batasuneko politika betetzeko orduan hobekuntzak lortzeko asmoz. Eskualdeek Batasuneko arauak nola betetzen dituzten auzitegiek kontrolatuko dute. Batasuneko arauak eta programak betetzeko hartzen dituzten neurrien berri emango diete estatuak eta eskualdeek elkarri.

8. Batasuneko organoek hartutako neurriren batek eskualdeen aginpideei edo interesei eragiten baldin badie, eskualdeek legimititatea izango dute Europako Batasuneko Justizi Auzitegira jotzeko.

9. Europako Legebiltzarrerako hauteskundeak arautzen dituen hauteskunde-legeak eskualde mailako barrutia izatea aurrikusiko du, egitura politiko eta administratibo deszentralizatuak dituzten estatuatarako.

10. Europako Legebiltzarraren eta eskualdeetako legebiltzarren artean harreman-bideak ezarri beharko dira, horiek baitira herritarren borondatea zuzenean ordezkatzeko duten erakundeak.

13. atala. Azken oharra

1. Europako Eskualdeen Batzarrak Europako eskualdeak bultzatu eta indartzeko asmoarekin aldarrikatu du adierazpen politiko hau. Kontuan izanik dauden asmoak eta egoerak era askotakoak direla, derrigorrez bete beharrekoa ez den agiri hau baliagarria izango da zenbait eskualderentzat gida gisa, gutxienean nondik norakoak eta helburu batzuk ezartzen baititu eskualdeak sendotzeari begira.

2. Europako Eskualdeen Batzarrak eta bertako kideek estatuetako gobernuetara, Europako Batasuneko organoetara eta Europako beste erakunde batzuetara ere joko dute, agiri honetan jasotako helburuak lortzeko.

3. Era berean, adierazpen honek garbi utzi du eskualdea dela eskualde mailako arazoak modu egokian eta autonomiarekin konpontzeko antolaketa-modu aproposa. Europako estatuak konpromisoa hartu beharko dute eskualdeen esku ahalik eta aginpide gehien uzteko eta aginpide horiek aurrera eramateko finantza-baliabideak eskualdeen esku jartzeko. Horretarako, beharrezkoak diren aldaketak egingo dituzte nazioarteko legerian.

4. Europako Eskualdeen Batzarrak eta bertako kideek Europako eskualdeen arteko elkarlana bultzatuko dute maila guztietan. Gainera, beren laguntza eskainiko diete gaur egun zentralizatuak diren estatuei, eskualdeak sendotzeko. Gainera, beharrezkoa balitz, konstituzio-zuzenbidea ere aldatuko litzateke eskualde mailako egiturarik egokienak sortu ahal izateko.

5. Erregionalismoa indartu eta horretan sakontzeko, mugaz gaindiko elkarlana ere lagungarria da. Mugaz gaindiko elkarlanean oinarritutako eskualde mailako identitateak garatzeak politikako eta gizarteko egonkortasuna errazten du.

6. Europako Batasunaren baitan eskualdeen lantaldea sortzea eta Europako Kontseiluaren baitan toki eta eskualde mailako botereen kongresua sortzea aurrerapauso garrantzitsua izan da Europako erregionalismoarentzat. Epe luzeagoari begira, eskualdeen Europa osatzera iritsi beharko litzateke, hirugarren maila finkatuta. Horrek eskualdeen lantaldea eskualde mailako benetako ganbara bihurtzea ekarriko luke.

7. Europako Eskualdeen Batzarrak eta bertako kideek toki-erakundeek osatutako elkarteei laguntza eskainiko diete. Dena den, helburu nagusia benetako nortasun erregionala garatzea izango da.

8. Adierazpen honetako helburuak lortzeko asmoz Europako estatuetan nolako aurrerapausoak emango diren aztertuko du Europako Eskualdeen Batzarrak.